

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 380/2026 Foru Agindua, ekainaren 23koa. Onespena ematea Sozietateen gaineko Zergaren eta establezimendu iraunkorren eta atzerrian eratuta egonik Arabako Lurralde Historikoan ari diren errenten egozketaren araubideko erakundeen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 200 eta 220 ereduari, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako, eta eredu horiek telematikoki aurkezteko baldintza orokorrei

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 126. eta 127. artikuluetan xedatzen du zerga horretako zergadunak beharturik daudela dagokien autolikidazioa aurkeztu eta izenpetzera eta ondoriozko zerga zorra zehaztu eta ordaintzera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabakitako tokian eta moduan.

Betebehar bera ezartzen du Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak 21. eta 38. artikuluetan.

Talde fiskalei dagokienez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 100. artikuluan xedatzen du erakunde ordezkaria beharturik egongo dela, talde fiskalaren autolikidazioa aurkezteko garaian, talde horri dagokion zerga zorra likidatzera eta ordaintzera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan.

Bestalde, urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Ogasunari aitortpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak arautu ziren.

Halaber, azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduak 200 eta 220 ereduak nahitaez telematikoki aurkeztu beharreko autolikidazio ereduaren zerrendan sartu zituen. Bereziki, ezartzen du autolikidazio horiek telematikoki aurkeztu behar dituztela sozietateen gaineko zergaren zergadunek baldin eta, Ekonomia Itunean xedatutakoarekin bat etorritik, haiek Arabako Foru Aldundian aurkezteko eginbeharra badute.

Hori dela eta, Sozietateen gaineko Zergaren eta establezimendu iraunkorren eta atzerrian eratuta egonik Arabako Lurralde Historikoan ari diren errenta egozketaren araubideko erakundeen Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko aurkeztu beharreko ereduak onetsi behar dira eta ereduok telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak ezarri behar dira.

Eredu horiek 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietan aplikatuko dira.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak onestea

Bat. Onespena ematen zaio 200 ereduari, zeina aurkeztu behar baita establezimendu iraunkorrek eta atzerrian eratuta egonik Arabako Lurralde Historikoan ari diren errenten egozketaren araubideko erakundeek Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako.

Eredu hori foru agindu honen ondoren argitaratzen da.

Bi. Onespena ematen zaio 220 ereduari, zeina aurkeztu behar baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako araubide bereziaren pean zerga ordaintzen duen talde fiskal bat ordezkatzeko erakundeek sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa egiteko, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako.

Eredu hori foru agindu honen ondoren argitaratzen da.

2. artikulua. 200 eredu Interneten bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak

Bat. Arabako Lurralde Historikoko araudiaren pean dauden erakundeak:

Zerga Arabako Lurralde Historikoko araudiaren arabera ordaintzen duten erakundeek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskuratuko dien laguntza programaren bidez egin behar dute beren autolikidazioa (200 eredu), eta nahitaez telematikoki aurkeztu behar dute Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Laguntza programa Arabako Foru Aldundiaren webgune ofizialetik (www.araba.eus) deskargatu ahal izango da eta, haren bitartez, foru agindu honen 1. artikuluko Bat apartatuan onetsitako eredu eskuratu.

Bi. Lurralde erkideko edo Bizkaiko edo Gipuzkoako lurralde historikoetako araudiaren pean dauden erakundeak:

Zerga lurralde erkideko edo Bizkaiko edo Gipuzkoako lurralde historikoetako araudiaren arabera ordaintzen duten erakundeek, dagokien zerga administrazio eskudunak prestatutako baliabide informatikoez baliatuz egin behar dute beren autolikidazioa, eta horrela sortutako fitxategiak nahitaez telematikoki helarazi behar dituzte Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Lurralde erkideko araudiari lotuta dauden entitateek 200 ereduari dagokion fitxategia balidatu beharko dute, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan telematikoki aurkeztu aurretik. Balidatzailea Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialetik deskargatu ahal izango da: www.araba.eus.

Hiru. Nafarroako Foru Komunitateko araudiaren pean dauden erakundeak:

Zerga Nafarroako Foru Komunitateko araudiaren arabera ordaintzen duten erakundeek laburpen aitopene bat bete behar dute linean, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, eta hari Nafarroako Foru Ogasunak onetsitako baliabide informatikoez egindako beren autolikidazio osoaren fitxategia erantsiko diote, PDF, TIF, TIFF edo ZIP formatuetan.

3. artikulua. 220 eredu Interneten bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak

Bat. Arabako Lurralde Historikoko araudiaren pean dauden talde fiskalak:

Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa (220 eredu) egin eta aurkeztu beharko dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako zerga baterakuntzaren araubidearen pean zerga ordaintzen duen talde fiskalak ordezkatzeko erakundeek.

Autolikidazioa nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Laguntza programa Arabako Foru Aldundiaren webgune ofizialetik (www.araba.eus) deskargatu ahal izango da eta, haren bitartez, foru agindu honen 1. artikuluko Bi apartatuan onetsitako eredu eskuratu.

Taldea osatzen duten sozietate guztiek kasuan kasuko araudietan onetsitako eredu banakako zerga ordaintzeko ezarritako autolikidazioak aurkeztu behar dituzte Arabako Foru Ogasunean. Autolikidazio horien aurkezpena, banakako araubidean, foru agindu honen 2. artikuluan ezarritako arabera egingo da. Nahitaez telematikoki aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Bi. Lurralde erkideko edo Bizkaiko edo Gipuzkoako lurralde historikoetako araudiaren pean dauden talde fiskalak:

Zerga lurralde erkideko edo Bizkaiko edo Gipuzkoako lurralde historikoetako araudiaren arabera ordaintzen duten talde fiskalak ordezkatzeko dituzten erakundeek, dagokien zerga administrazio eskudunak prestatutako baliabide informatikoez baliatuz egin behar dute beren autolikidazioa, eta horrela sortutako fitxategiak nahitaez telematikoki helarazi behar dituzte Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Lurralde erkideko araudiari lotuta dauden talde fiskalak ordezkatzeko dituzten entitateek 220 ereduari dagokion fitxategia balidatu beharko dute, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan telematikoki aurkeztu aurretik. Balidatzailea Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialetik deskargatu ahal izango da: www.araba.eus.

Taldea osatzen duten eta Arabako Lurralde Historikoan eragiketen zenbatekoa duten sozietateek, dagozkien araudietan onetsitako ereduetan banakako zerga ordainketarako ezarritako autolikidazioak aurkeztu behar dituzte Arabako Foru Ogasunean. Autolikidazio horien aurkezpena, banakako araubidean, foru agindu honen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da. Nahitaez telematikoki aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

Hiru. Nafarroako Foru Komunitateko araudiaren pean dauden talde fiskalak:

Zerga Nafarroako Foru Komunitateko araudiaren arabera ordaintzen duten talde fiskalak ordezkatzeko dituzten erakundeek laburpen-aitorpen bat bete behar dute linean, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, eta hari Nafarroako Foru Ogasunak onetsitako baliabide informatikoez egindako beren autolikidazio osoaren fitxategia erantsiko diote, PDF, TIF, TIFF edo ZIP formatuetan.

Taldea osatzen duten eta Arabako Lurralde Historikoan eragiketen zenbatekoa duten sozietateek, dagozkien araudietan onetsitako ereduetan banakako zerga ordainketarako ezarritako autolikidazioak aurkeztu behar dituzte Arabako Foru Ogasunean. Autolikidazio horien aurkezpena, banakako araubidean, foru agindu honen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da. Nahitaez telematikoki aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez.

4. artikulua. 200 eta 220 ereduak Interneten bidez telematikoki aurkezteko prozedura

Arabako Foru Ogasunean aitorpenak eta autolikidazioak telematikoki aurkezteko baldintza eta betebeharrak arautzen dituen urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuaren 3., 7. eta 8. artikuluetan ezarritako prozedurari jarraituz egin behar da 200 eta 220 ereduaren aurkezpen telematikoa.

Bereziki:

1. Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia izan behar du eta Arabako Foru Ogasunaren Zergadunen errolda bateratuan sartuta egon behar du autolikidazioa aurkeztu baino lehen, zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2. Aitortzaileak edo, hala badagokio, borondatezko ordezkariak, egoitza elektronikoko zerbitzuak erabiltzeko baldintzak bete beharko ditu, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortu zuen apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik.

5. artikulua. Aurkezteko epea

Bat. Autolikidazioa zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilaren ondoko 25 egunen barruan aurkeztu beharko da.

Bi. Arabako Lurralde Historikoko araudiaren pean dauden eta aurreko apartatuan jarritako epea hasi aurretik hasita daukaten zergadunek, foru agindu honek ondorioak izan eta hurrengo 25 egun naturalen barruan aurkeztu ahal izango dute autolikidazioa.

Hiru. Arabakoa ez den araudi baten pean dauden zergadunek bakoitzari dagokion araudian ezarritako epeetan aurkeztu behar dituzte beren autolikidazioak foru ogasun honetan.

6. artikulua. Aurkezpen telematikoa

200 eta 220 ereduie dagozkien autolikidazioak nahitaez telematikoki bidali behar zaizkio foru ogasun honi, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eta foru agindu honetan azaltzen denaren arabera, edozein emaitza dutelarik: positiboa, nulua, edo itzultzeko eskubidearekin.

7. artikulua. Ordaintzeko moduak eta helbideratze eguna

Bat. Autolikidazioen emaitza ordaintzekoa baldin bada eta epearen barruan aurkezten badira, honako modalitate hauetako baten bidez egin beharko da ordainketa:

1. Banku helbideratzearen bidezko ordainketa; kasu horretan, hautatutako finantza erakundeak martxoaren 28ko 195/2025 Foru Aginduan agertu beharko du, zeinaren bidez zerrendatzen baitira Arabako Foru Aldundiaren dirubilketa kudeatzeko erakunde laguntzaileak.

2. Arabako Foru Aldundiak jaulkitako ordainketa gutunaren bidezko ordainketa, autolikidazioa aurkezten den unean.

Bi. Autolikidazioen emaitza ordaintzekoa baldin bada eta epez kanpo aurkezten badira, Arabako Foru Aldundiak emandako ordainketa gutunaren bidez egin beharko da ordainketa autolikidazioa aurkezten den unean.

Hiru. Helbideratutako kuota positiboak 2026ko uztailaren 29an zordunduko dira, autolikidazio epea 2026ko uztailaren 27an amaitzen zaien zergadunen kasuan.

Lau. Kuota positiboen ordainketa geroratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskaerak, foru agindu honen 5. artikuluan Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkezteko ezarritako epean aurkeztu behar dira. Arabako Lurralde Historikoko araudiaren pean dauden erakundeek laguntza programaren bitartez aurkeztu behar dituzte ordainketak geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak.

8. artikulua. Dokumentazioa

Sozietateen gaineko Zergaren araudian edo foru agindu honetan ezarritako kasuetan nahitaez autolikidazioarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria, edo zergadunak bere borondatez erantsi nahi duena, telematikoki aurkeztu beharko da PDF, TIF, TIFF, JPG edo JPEG formatuan egoitza elektronikoaren bidez, eta horrekin batera autolikidazioaren fitxategia bidali beharko da.

Bat. Aitorpenarekin batera, dokumentazio osagarria aurkeztuko da telematikoki, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan araututako artikulua hauek aplikatzen badira:

1. 33. artikulua: dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen gaineko zergapetze bikoitza ezabatzea.

Artikulu honetan kontzeptu horrengatik zerga oinarrian egindako doiketa bidezkoa izateko ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak emango dira.

2. 34. artikulua: erakundeetako partaidetza eskualdatuz lortutako errenten gaineko zergapetze bikoitza kentzea.

Artikulu honetan kontzeptu horrengatik zerga oinarrian egindako doiketa bidezkoa izateko ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak emango dira.

3. 35. artikulua: establezimendu iraunkorrek lortutako errentak.

Artikulu honetan kontzeptu horrengatik zerga oinarrian egindako doiketa bidezkoa izateko ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak emango dira.

4. 41. artikulua: egoitza aldatzea eta ondare elementuak atzerrian kokatutako establezimendu iraunkorretara eramatea: kuoten ordainketa geroratzearen aldeko aukera, 41. artikulua 2. apartatuan jasoriko kasuan lortutako errentengatik.

Eskualdatutako elementuen zerga eta merkatu balioen eta ateratzen den kuota osoaren zenbatekoaren banakako zerrenda emango da, bai eta abal solidario bat ere, baldin eta ez ordaintzeko arrisku frogagarria eta erreala badago.

5. 48. artikulua: erakunde ez-egoiliarrek eta atzerrian dauden establezimendu iraunkorrek lortutako errenta positibo jakin batzuk zerga oinarrian sartzea.

Espainiako lurraldean egoiliar ez den erakundeari buruzko datu hauek aurkeztuko dira:

- a) Sozietatearen izena eta helbidea.
- b) Administratzaileen zerrenda.
- c) Balantzea eta galera-irabazien kontua.
- d) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.
- e) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboa dela-eta ordaindutako zergen frogagiriak.

Establezimendu iraunkorren kasuan, aurreko d) eta e) letretan adierazitako datuak aurkeztu beharko dira, bai eta haiek egiten dituzten eragiketen eta haiei atxikitako aktibo eta pasiboen kontabilitate erregistroak ere.

6. 66. artikulua: enplegua sortzearen kenkaria.

Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, esaten duena erakundeak betetzen duela, eta kenkaria eragiten duen kontratazioa egiten den zergaldia amaitu eta hurrengo hiru urteetan bukatzen diren zergaldietan beteko duela, balio bereko lana egiteagatik ordainsari berdina ordaintzeko eginbeharra, zuzenean nahiz zeharka ordaindua, berdin du zein den haren izaera, soldata nahiz soldataz kanpokoa, ezingo delarik sexuagatik inolako bereizkeriarik egin ordainsariaren ezein elementu edo baldintzatan.

Era berean, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten talde batzuetako pertsonak kontratatzeagatik igotako kenkaria aplikatzen bada, kenkari horren bidezotasuna justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.

7. 66 bis artikulua: kenkaria, mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertain sortu berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotutakoetan inbertitzeagatik.

Erakundeak, zeinaren akzioak edo partaidetzak harpidetu edo eskuratu baitira, eginiko ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, adierazten duena akzioak edo partaidetzak eskuratu diren zergaldian bidezko kenkaria aplikatzeko eskubidearen betekizunak bete direla.

Horrez gain, 2. apartatuaren a) letran araututako kasuan (partaidetzak eskuratzea erakunde berritzaileetan), Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua 2. artikuluko 80. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategorian jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

8. 66 ter artikulua: Kultura sustatzeko pizgarriak.

66 ter artikulua bat eta bi apartatuetan jasotako kenkariak egiaztatzen dituzten zergadunek honako informazio hau eman beharko dute:

a) Zergaldian egindako ikus-entzunezko lanak eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak, pizgarrirako eskubidea ematen dutenak.

b) Lan edo ikuskizun bakoitzean parte hartu duten gainerako pertsonak eta erakundeak, eta haien partaidetza maila.

- c) Lan edo ikuskizun bakoitzerako jasotako laguntza edo dirulaguntza publikoen zerrenda.
- d) Lan edo ikuskizun baten finantzaketan hirugarrenek parte hartu badute, Zergaren Foru Arauaren 66 quater artikuluan ezartzen den bezala, haien identifikazioa.
- e) Lana kulturala dela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- f) Ikus-entzunezko lanen kasuan, gainera, lanaren kopia berri bat erakunde eskudunean utzi izanaren egiaztagiria aurkeztuko da.

9. 66 quinques artikulua: kenkaria bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak ezartzeagatik.

Kontzilioa plana aurkeztuko da, non jasoko baitira kenkari egiaztatua justifikatzen duten neurriak eta erantzukizunpeko adierazpena adierazten duena plan honek gainditu egiten dituela erakundeari aplikatzekoa zaion lege esparruan nahitaez bete beharreko gutxienekoak eta neurriak eskuragarri daudela hura aplikatu dezaketen langile guztientzat.

10. Hogeita bigarren xedapen gehigarria: Sozietateen gaineko Zergari lotutako sozietate zibilak.

Sozietateen gaineko Zergari lotutako sozietate zibiletako bazkideek, zeinek Arabako foru araudia bete behar baitute, sozietate zibilen errentetako datu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Sozietatearen izena eta helbidea.
- b) Administrazioaren zerrenda.
- c) Balantzea eta galera-irabazien kontua.
- d) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboa dela-eta ordaindutako zergen frogagiriak.

Bi. Aitorpenarekin batera, Sozietateen gaineko Zergaren Arautegia onesten duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren artikulua hauetan eskatutako dokumentazioa aurkeztuko da telematikoki:

1. 8. artikulua: finantza merkataritzako funtsa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 24. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zerga oinarria murrizten den ekitaldietan, informazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Zuzeneko partaidetza duten erakunde bakoitzari dagokionez:
 - 1. Identifikazioa eta partaidetzaren ehunekoa.
 - 2. Jardueren deskripzioa.
 - 3. Partaidetzaren balioa eta noiz eskuratu den, eta kontabilitatean dagokion ondare garbiaren balioa (urteko kontu bateratuak oinarritzat hartuta kalkulaturakoa).
 - 4. Baterakuntzarako (balioak eta aldiak) erabilitako irizpideen justifikazioa, eta eskuraketa egunean partaidetzaren eskuraketa prezioaren eta hari egotzi beharreko kontabilitateko ondare garbiaren artean egon den diferentzia partaidetza hartutako erakundearen ondasunei eta eskubideei egozteko irizpideen justifikazioa ere bai.

b) Baldin eta erakundeak, zeinaren partaidetzak eskuratzen baitira, partaidetza badauka beste erakunde batean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 24. artikuluko 2. apartatua ezarritakoaren arabera:

1. Zuzenean partaidetutako erakundearen identifikazioa, bertako partaidetzaren ehunekoa eta jardueren deskripzioa.

2. Zeharka partaidetutako erakundearen identifikazioa, zeharkako partaidetzaren ehunekoa eta jardueren deskripzioa.

3. Partaidetzaren balioa eta noiz eskuratu den, eta kontabilitatean dagokion ondare garbiaren balioa, urteko kontu bateratuak oinarritzat hartuta kalkulaturakoa Merkataritzako Kodeko eta beraren garapen arauetako irizpideak (behar bezala homogeneousatuta) aplikatuz.

4. Baterakuntzarako (balioak eta aldiak) erabilitako irizpideen justifikazioa, eta eskuraketa egunean partaidetzen eskuraketa prezioaren eta haiei egotzi beharreko kontabilitateko ondare garbiaren artean egon den diferentzia partaidetza hartutako erakundeen ondasunei eta eskubideei egotzeko irizpideen justifikazioa ere bai.

c) Espainiako lurraldean egoiliarak ez diren erakundeetako partaidetzak eskuratzeko egindako inbertsioaren zenbatekoa, zeina sartuta baitago Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen iragankorraren kenkariaren oinarrian.

2. 26. artikulua: lotutako pertsona edo erakundeekin egindako eragiketak baloratzeko erabakia aplikatzeari buruzko informazioa.

Aurkeztu beharreko informazioak honako hauek jaso beharko ditu, besteak beste:

a) Autolikidazioan aipatzen den zergaldian edo likidazioaldian egindako eragiketak, zeinei alde aurreko erabakia aplikatu baitzaie.

b) Eragiketa horiek zein prezio edo baliotan egin diren, alde aurretik erabakia aplikatzearen ondorioz.

c) Alde aurreko erabakian ezarritako balorazio metodoa aplikatzeko oinarritzat jotzen diren inguruabar ekonomikoen aldaketa garrantzitsuak, halakorik egonez gero.

d) Zergaldian edo likidazioaldian egindako eragiketak, alde aurreko erabakian aipatutakoen antzekoak, zer preziotan egin diren, eta zer desberdintasun dauden alde aurreko erabakiaren esparruko eragiketekiko.

Hala ere, beste administrazio batzuekin sinatutako erabakietan, zergapekoak urtero aurkeztu beharko duen dokumentazioa erabakitik ondorioztatzen dena izango da.

3. 43.9 artikulua: ondoko hauen araubide berezia: bat egiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorrak, eta Europako sozietate edo sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.

Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko Foru Arauaren 107. artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan, manu horretan jasotzen den zerga oinarrian ez integratzea aplikatzen duen erakunde eskuratzailleak informazio hau aurkeztu beharko du:

a) Erakunde eskualdatzailearen identifikazioa eta beraren partaidetzaren ehunekoa.

b) Erakunde eskualdatzailearen partaidetzen balioa eta bakoitzaren eskuraketa data, eta partaidetza horiei dagozkien funts propioen balioa, homogeneousatutako urteko kontuak oinarritzat hartuta zehaztuta.

c) Balorazio homogeneousazioaren eta behin-behinekoaren irizpideen justifikazioa, baita erakunde eskualdatzailearen ondasunei eta eskubideei egotzitakoa ere partaidetzen eskuratzeko prezioaren eta horiei dagozkien funts propioen arteko aldea erakundea desegitearen egunean.

Hiru. Irabazteko xederik gabeko erakunde zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarri buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan jasoriko zerga araubide berezia aukeratu duten erakundeek, aitopenearekin batera, memoria ekonomiko bat aurkeztuko dute telematikoki, urriaren 19ko 60/2004 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako baldintzetan (60/2004 Foru Dekretua, irabazteko xederik gabeko erakunde zerga erregimena eta mezenasgoaren zerga-pizgarriak aplikatzeko arautegia onartzekoa).

1. Memoria ekonomikoak informazio hau jasoko du:

a) Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsitako eta salbuetsi gabeko errenten identifikazioa, abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 8. eta 9. artikuluetako zenbakia eta, hala badagokio, letra adierazita, zeinek salbuespena babestuko baitute, haietako bakoitzaren diru sarrerak eta gastuak adierazita. Halaber, adierazi beharko da zer kalkulu eta irizpide erabili diren gastuak nola banatu erabakitzeke erakundeak lortutako errenten artean.

b) Erakundeak bere estatutu helburuak edo xedea betetzeko egindako proiektu edo jarduera bakoitzari dagozkion diru sarrerak, gastuak eta inbertsioak identifikatzea. Proiektu bakoitzaren gastuak kategorien arabera sailkatuko dira, hala nola langile gastuak, kanpo zerbitzuen gastuak edo material erosketak.

c) Abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 5.2 artikuluan aipatzen diren errentak eta diru sarrerak zehazteko eta kalkulatzeko modua, eta haien xedea edo aplikazioa deskribatzea.

d) Erakundeak bere patronatu kideei, ordezkarietara edo gobernu eta/edo administrazio organo kideei ordaindutako ordainsariak, dirutan edo gauzatan, bai beren eginkizuna betetzeak eragindako gastuen diru itzulketa gisa bai ordainsari gisa erakundeari haien eginkizunaz gain emandako zerbitzuengatik. Lan ordainsariak eta hirugarrenei egindako ordainketak ere zehaztuko dira.

e) Erakundeak merkataritza sozietateetan duen partaidetzaren ehunekoa, bai eta erakundearen identifikazioa, izen soziala eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere.

f) Erakundea ordezkatzeko duten administratzaileek partaide diren merkataritza sozietateetan jasotako ordainsariak, itzuli diren zenbatekoak adierazita.

g) Interes orokorreko jardueretarako erakundeak sinatutako enpresen lankidetzak hitzarmenak, haietan parte hartzen duen laguntzailea identifikatuz eta jasotako zenbatekoak adieraziz.

h) Erakundea deseginez gero, haren ondarearen xedeari buruzko estatutu aurreikuspena, eta, desegitea ekitaldian gertatu bada, ondare horri emandako erabilera.

2. Kontabilitate araudiaren arabera memoria urtero egitera behartuta dauden erakundeek artikulua honetan xedatutakoa bete ahal izango dute, memoria horretan 1. zenbakian aipatzen den informazioa sartuta.

3. Hala ere, zergaldiko diru sarreren gutzizko bolumena 30.000,00 eurotik gorakoa ez duten eta merkataritza sozietateetan parte hartzen ez duten erakundeek ez dute memoria ekonomikoa aurkezteko betebeharririk izango; hala ere, erakunde horiek memoria ekonomiko hori egiteko betebeharra dute.

Lau. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan ezarritako mezenasgorako zerga pizgarrien esparruan, dohaintzen, donazioen, ekarpenen eta doako zerbitzu prestazioen justifikazioa erantsiko da, baldin eta entitate onuraduna ez-egoiliarra bada, aipatutako Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bost. Ondare sozietateek ondare elementuak eskualdatzean lortutako gainbalioaren edo minusbalioaren kalkulua justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuko dute, bai eta tributazio araubidea ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 117.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz gero.

Sei. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 62. artikulutik 64. artikulura araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoagatik kenkariak justifikatzeko, SPRIk edo arlo horretan behar bezala egiaztatutako erakundeak emandako kalifikazio teknikoak ziurtagiriak aurkeztuko dira.

Aitorpena aurkezten den egunean txosten hori ez badago, hura eskatu izanaren justifikazioa aurkeztuko da.

Zazpi. Halaber, Arabako araudia aplikatuz zerga baterakuntzan zergapetzen diren taldeek, aitorpenarekin batera, jasandako atxikipenen zerrenda aurkeztuko dute telematikoki, zehaztuta atxikipenak jasan dituen taldeko erakunde bakoitzaren identifikazioa eta atxikipenen zenbatekoa.

Zortzi. Dokumentazio hori eta aitorpena ez badira aurkezten telematikoki Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez, administrazio zehapena jarri ahal izango da, aplikatu beharreko araudian xedatutakoarekin bat etorritz.

9. artikulua. Nahitaezko informazioa

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 126.5 artikulua arabera, zergaren aitorpenean nahitaez eman beharko da honako alderdi hauei buruzko informazioa:

a) Erakundearen kapitalean ehuneko 5eko partaidetza edo handiagoa daukaten bazkideen zerrenda.

b) Zergadunak kapitalaren ehuneko 5eko partaidetza edo handiagoa daukan erakundeen zerrenda.

c) Erakundeko administratzaileen edo administrazio kontseiluko kideen zerrenda.

Aitorpenean informazio hori betetzen ez bada, administrazio zehapena jarri ahal izango da, aipatutako 126.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua. Finantzaketa mekanismoak

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 64 bis edo 66 quater artikuluen babesean finantzaketa kontratuak sinatu dituzten erakunde garatzaileek edo ekoizleek finantzatzutako jardueran sortutako ekitaldiko kenkaria aitortuko dute, guztizko zenbatekoarekin, eta, era berean, jasota utziko dute finantzatzaileei egotz dakiekeen kenkariaren zatia laguntza programan horretarako ezarritako laukitxoetan.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 64 bis artikulua 9. apartatua ezarritakoaren babesean Bizkaiko eta/edo Gipuzkoako lurralde historikoetako araudiari lotutako erakundeek garatutako proiektuetan parte hartu duten Arabako araugintzako erakundeek, aitorpenarekin batera, sinatutako finantzaketa kontratua aurkeztuko dute. Betebehar bera izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoari lotutako erakundeek garatutako proiektuak finantzatzean parte hartu duten Arabako araugintzako erakundeek, arau horren 66 quater artikulua 11. apartatua ezarritakoaren babesean.

11. artikulua. 2025eko arau berrikuntzak

Arabako araudiaren sozietateen gaineko zergaren zergadunek Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialean (www.araba.eus) eskura dute arlo horretan onetsitako arau xedapenen zerrenda bat, 2025eko urtarrilaren 1ean hasitako ekitaldietarako ondorioekin, bai eta haien ondoriozko aldaketa esanguratsuenen laburpena ere.


AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2026ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 23a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p>	<p>Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeak)</p> <p>ZERGALDI HONETAKO AUTOLIKIDAZIOA</p> <p>...../...../ -/...../.....</p>	200			
Erakunde aitortzailearen identifikazioa					
IFZ	Sozietatearen izena				
Zerga egoitza (kalea edo plaza)	Zenbakia	Solairua	Atea	Telefonoa	
Udalerrria	Posta kodea	Probintzia	Helbide elektronikoa	Faxa	
Aurkezlea					
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena				
Harremanetarako pertsona					
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena			Telefonoa	
Helbide elektronikoa					
Ahalordez					
Ahalordez, jauna/andrea IFZ:.....				
	Notariotza:.....		Ahalordearen data:.....		
 jauna/andrea IFZ:.....				
	Notariotza:.....		Ahalordearen data:.....		
..... jauna/andrea IFZ:.....					
Notariotza:.....		Ahalordearen data:.....			
..... jauna/andrea IFZ:.....					
Notariotza:.....		Ahalordearen data:.....			
Aitorpenaren emaitza..... <input type="text" value="1570"/>					
HELBIDERATZEA:					
INTERNET BIDEZKO ORDAINKETA:.....					
		Dirubilk. proz. kodea	Erakunde jaulkitzailea	Erreferentzia	Identifikazioa
Zerga zorraren ordainketa zatikatzea..... <input type="checkbox"/>		Sartutako zenbatekoa..... <input type="text"/>			
Zerga zorra konpentsatzea..... <input type="checkbox"/>		Ordaindu beharreko zenbatekoa..... <input type="text"/>			
37/2013 FÁren 126.1 artikuluko 3. paragrafoak jasoriko aukeraren arrazoia.....		9965	<input type="text"/>		
Aseguru erakundeak edo BGAE		S	<input type="checkbox"/>		
Talde inbertsioko erakundeak.....		I	<input type="checkbox"/>		
Kooperatibak, kreditu edo aseguru kooperatibak izan ezik.....		C	<input type="checkbox"/>		
Gainerakoak.....		N	<input type="checkbox"/>		
Aurkezpen telematikoa					

2. ORRIALDEA		Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egoketaren araubideko erakundeak)					
200		AITORPENENKO JARDUERA (EDO JARDUERAK) ZERGA ARAUBIDE BEREZIAK ETA AITORPENAREN EZAUGARRIAK				2025	
IFZ		Izena edo sozietatearen izena					
ERAKUNDEAK EGITEN DITUEN JARDUERAK			JEZen ATALA		JEZen epigrafea		
JARDUERA NAGUSIA	090		5511		002		
BESTE BATZUK	091		5512		003		
	092		5513		004		
	093		5514		005		
ERAKUNDEAREN LANGILE PLANTILLA							
Lan kontratu langilerik gabe ekitaldian							
	086						
Ekitaldiko batez besteko langile kopurua (mota guztietako kontratuak)	006		Plantillaren batez bestekoa aurreko ekitaldian (kontratu mota oro)		5501		
Ekitaldian plantillako zenbatak batez beste izan duen lan kontratu mugagabea	068		Ekitaldiaren amaieran mugagabe lan kontratua duten langileak		007		
Aurreko ekitaldiaren amaieran mugagabe lan kontratu mugagabea	069		Aurreko ekitaldiaren amaieran mugagabe lan kontratua zuten langileak		094		
Ekitaldian gehienez ere zenbat langilek izan duten lan kontratu mugagabea	076		Aurreko ekitaldiaren amaieran mugagabe lan kontratua zuten langileen gehieneko kopurua		5500		
Higiezin errentamendu, salerosketa edo sustapen jarduerak ekonomikoak: lanaldi osoan eta arduraldi eskusiboarekin aritu izan diren langileen plantillaren batez bestekoa ekitaldian					072		
Higiezin errentamendu, salerosketa edo sustapen jarduerak ekonomikoak: lanaldi osoan eta arduraldi eskusiboarekin aritu izan diren langileen plantillaren batez bestekoa aurreko ekitaldian					5502		
ZERGA ARAUBIDE BEREZIAK ETA AITORPENAREN EZAUGARRIAK (Markatu X batez behar diren laukiak)							
35/2021 FAko zerga araubidea	008		Mikroenpresa (37/2013 FA, 13.1 art.)	074		Balore jakin batzuk dauzkaten erakundeak	030
Partzialki salbetsutako erakunde (37/2013 FA, 12.2 art.)	009		Mikroenpresak: zerga konpentsazio aukera (37/2013 FA, 32.4 art.)	075		Kooperatiba babestua	031
BGAE (24/88 FA)	070		Enpresa txikia (37/2013 FA, 13.2 art.)	020		Babes bereziko kooperatiba	032
Pentsio Funtzak (1/2002 RDL)	010		Enpresa ertaina (37/2013 FA, 13.3 art.)	021		Babestu gabeko kooperatiba	033
Arisku-kapitaleko sozietateak eta funtsak	011		Enpresa handia	022		Bigarren edo ondorengo graduako kooperatiba	079
Zerga talde bateko erakunde (taldearen zk. adierazi behar da)	013		Meatzaritzako erakunde	023		Lehentasunezko nekaza eta elikagai ustategia den Kooperatiba	058
Taldearen erakunde ordezkariaren IFZ	085		Jardun gabeko erakunde	024		Lan elkartuko kooperatiba (bazkideen % 50ek desgaitasuna)	098
Talde bateko erakunde nagusia	014		Zergak Estatuari/aldundi/Nafarroako FKri ordaintzea	025		ABEE	035
Menpeko erakunde	015		Kapital aldagarriko inbertsio sozietatea	071		NEA	036
Taldearen erakunde ordezkaria	077		Finantzen arloko inbertsio funtsa	026		EIET	037
Hidrokarburoen arloko ikerketa eta ustapenerako erakunde	016		Higiezinetako inbertsio sozietatea edo higiezinetako inbertsio funtsa	027		Ondare sozietatea	038
Higiezin errentamenduen kalifikazioa daukan jarduerak (37/2013 FA, 115.1 art.)	017		Banku fundazioa	078		37/2013 Faren 56.3 artikuluko erakunde, beste araubiderik ez daukana	039
Higiezin errentamenduen kalifikazioa daukan jarduerak (37/2013 FA, 115.2 art.)	073		Aseguru erakunde	029		Merkataritza taldeko erakunde (Merkataritza Kodea, 42. Art.)	040
Higiezin errentamenduen araubide berezia, aukera jakinarazteko data	097		Desegindako eta likidatutako erakunde	052		Arabako LHko arautegia aplikatzen zaion erakunde	046
Establezimendu iraunkorra	019		Likidaziorik gabe desegindako erakunde (enpresa berregituratzeko prozesuak)	054		ALHan ari den atzerrian eraturiko errenta egoketaren araubideko erakunde	047
Balantzeak eguneratzeko aukera hartu zuen, 15/2012 ZPAD	059		Establezimendu iraunkor bat baino gehiago dituen erakunde ez-egoilara	6601		Bazkideen ekarpenak, ezaugarri berezia duten ondare tresna gisa kalifikatutakoak	080
Eraldaketa nekazaritza sozietatea	096		Nekazaritza edota abeltzaintza-jarduerak egiten ditu	5506		Berrinbertsiorako aukera (37/2013 FA, 14.2.e)	5507
Taldearen filiala, Zerga Osagarriaren ondorioarako (2. Zutabea)	5509		Taldearen azken jatorrizko erakunde Zerga osagarriaren ondorioarako (2. Zutabea)	5510			
Aitorpen ordezkioa	034		(1)			Aurreko aurkezpen zenbakia	9961
						Epez kanpo aurkeztutako aitorpena, aurreko aurkezpenarekin	084
1) Aitorpen ordezkioa aurkeztetokan, lehenengo aitorpena ordeztzen duen aitorpen berri osoa egin beharko da.							
KONTABILITATE ORRIAK							
Urteko kontuen onespene data		088		Urteko kontuak onetsi gabe oraindik		089	
Balantzea: Modalitate arrunta	055		OGAE: Modalitate arrunta	060		Galerak eta irabaziak: Modalitate arrunta	065
Modalitate laburra	056		Modalitate laburra	061		Modalitate laburra	066
ETEn modalitatea	057		ETEn modalitatea	062		ETEn modalitatea	067
Aurkezpen telematikoa							

3. ORRIALDEA		Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeak) ADMINISTRATZAILEAK, ZUZENENKO PARTAIDETZAK, BAZKIDEAK EDO PARTAIDEAK						2025
200								
IFZ		Izena edo sozietatearen izena						

A) ADMINISTRATZAILEEN ZERRENDA (ERAKUNDE AITORTZAILE GUZTIEK BETE BEHAR DUTE)
ERAKUNDEAREN ZUZENDARITZA, ADMINISTRAZIO EDO KONTROLEKO KARGUETAN (KONTSEILUAN, KUDEAKETAN, ZUZENDARITZAN, ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA ANTZEKOETAN) ARI DIREN PERTSONAK EDO ERAKUNDEAK

IFZ	F/J	R/X	Izena / Sozietatearen izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Probintziaren / Herrialderen kodea
3500	3501	3502	3503	3525	3526	3504

B) AITORTZAILEAK BESTE ERAKUNDE BATZUETAN DITUEN PARTAIDETZAK (KAPITAL SOZIALAREN % 5 EDO GEHIAGO; SOZIETATEAREN BALOREEK BIGARREN MAILAKO MERKATU ANTOLATU BATEAN KOTIZATZEN BADUTE, % 1 EDO GEHIAGO).

* Erakunde aitortzaileak ez badauka beste erakunde batean ezarritako mugez gaindiko partaidetzarik, markatu X batez

Partaidetza hartutako erakundearen datuak	1. erakundea	2. erakundea	3. erakundea	4. erakundea
IFZ	3506			
R/X	3507			
Izena / Sozietatearen izena	3508			
Kodea (probintzia / herrialdea)	3509			
Kapitala	3510			
Norberaren funtsak	3511			
Ondare garbia	3512			
Azken ekitaldiko emaitza	3513			
Aitortzailearen datuak				
Partaidetzaren % (bi hamartarrekin)	3514			
Partaidetzaren balio izendatua	3515			
Partaidetzaren balioa liburutuan	3516			
Aitorp. ekitaldian jasotako dibid. sarrerak	3517			
Balio zuzenketak narriaduragatik				
Narriaduragatik galera 2024ko ekitaldiaren amaieran	3518			
(+/-) Narriaduragatik aldakuntza gal. eta ir. kontura	3519			
(+/-) Aldakuntza, ondare garbiarekin alderatuta	3520			
(-) Irteerak eta txikpenak	3521			
(+/-) Intsuldaketak eta beste aldakuntza batzuk	3522			
Narriaduragatik galera 2025eko ekitaldiaren amaieran	3523			
Markatu kontabilitate balioa zero bada	3524			

C) PERTSONEK EDO ERAKUNDEEK AITORTZAILEAN DAUZKATEN ZUZENENKO PARTAIDETZAK (KAPITAL SOZIALAREN % 5 EDO GEHIAGO; SOZIETATEAREN BALOREEK BIGARREN MAILAKO MERKATU BATEAN KOTIZATZEN BADUTE, % 1 EDO GEHIAGO)

* Jari X bat erakunde aitortzailean adierazitako mugetara iristen ez den partatzailea maila duten bazkide edo partaideak badaude

* Erakunde aitortzailearen baloreek bigarren mailako merkatu antolatuan batean kotizatzen badute, markatu X batez

IFZ	F/J	R/X	Izena / Sozietatearen izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Kodea (Prob. / Herr.)	Balio izendatua	Part. %
3531	3532	3533	3534	3538	3539	3535	3536	3537

Aurkezpen telematikoa

4. ORRIALDEA		Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeak)						2025	
200		ESTABLEZIMENDUAK .							
IFZ		Izena edo sozietatearen izena							
D) ESTABLEZIMENDUEN ZERRENDA									
* Ez badauka establezimendurik, markatu X batez									
									3570
Establezimendua: kalea edo plaza	Udalerrria	Probintziaren / Herrialderen kodea	Estab. Mota	Errentatzaillea edo Lagatzaillea			Urteko alokairua		
				IFZ	R/X	Egoitza: prob./herrialde kodea			
3571	3572	3573	3574	3575	3578	3576	3577		

Aurkezpen telematikoa

5. ORRIALDEA	Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (estabiezimendu iraukorrorrak eta AL.Han ari diren atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeak)	2024
200	ESPAINIAKO ETA EUROPAKO INTERES EKONOMIKOKO ELKARTZEAK ETA ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK 37/2013 F.Aren VI. TITULUKO III. KAPITULUETAKO ARAUBIDE BEREZIAK <small>Izena edo sozietatearen izena</small>	
IFZ	Izena edo sozietatearen izena	

A) ZERGA OINARRIEN ETA GAINERAKO LIKIDAZIO KONTZEPTEUEN EGOKZETA EHUNEKOA

	3600	%
1. Bazkidea edo bazkidegaurak berekin dakartzan estabide ekonomikak daukaten pertsona / (PEEZ edo Sozietateen gaineko Zerga ordaintzeko behar pertsonalagatik subjektu asatza dituen) edo Espainiako lurraldeko egoiliar diren bazkideei edo enpresari dagozkien zerga oinarrien eta gainerako likidazio kontzeptuen egokzeta ehunekoak adierazi behar da.....	3601	
2. Kontabilitateko emaitza	3603	
3. Erakundeak kendu ez dituen finantza gastu garbiak.....	3602	
4. Zerga oinarria		

B) KENKARIEI BURUZKO INFORMAZIOA (kaikuturako oinarria)

	Egozti beharrekoa	Guztira
1 Behin-behineko neurriak leheneratzearen ondoriozko kenkariaren oinarria	3615	3616
2 Zergapetze bikoitzagailko kenkariaren oinarria 37/2013 F.Aren 60.5 art.....	3605	3606
3 Zergapetze bikoitzagailko kenkariaren oinarria (gainerakoak)	3607	3608
4 %35eko muga duten kenkariaren oinarria	3611	3612
5 %70eko muga duten kenkariaren oinarria	3613	3614
6 %50eko muga duten kenkariaren oinarria	3626	3627

C) ERAKUNDEAK JASANDAKO ATXIKIPENEI ETA KONTURAKO SARREREI BURUZKO INFORMAZIOA

	Egozti beharrekoa	Guztira
1. Finantza sareren eta beste batzuen atxikipenak eta konturako sarerak	3620	3621
2. Hilezinen errentamenduren gaineko atxikipenak	3622	3623
3. Beste erakunde batzuek egotzilaiko abikipenak eta konturako sarerak	3624	3625

D) ERRESERBEN KONTURA BANATUTAKO DIBIDENDUEI ETA MOZKINETAKO PARTAIDETZEI BURUZKO INFORMAZIOA

1. Sozietatea egozketaren araubidean egon ez den ekitaldiak	3630
2. Sozietatea egozketaren araubidean egon den ekitaldiak	3631

E) EKITALDIA ITXI DEN EGUNEAN EGON DIREN BAZKIDEETATIK EGOKZETAK JASAN BEHAR DITUZTENEN ZERRENDA, GOTIK BEHERAKO HURRENKERAN PARTAIDETZA MAILAREN ARABERA, BERAIEAN IDENTIFIKAZIO DATUEKIN ETA EGUN HORRETAN EDUKI DUTEN PARTAIDETZAREKIN

IFZ	F/J	F/X	Izena / Sozietatearen izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Kodea (prob./herr)	Finantza gastu garbi egozgarriak		Egozti daitekeen zerga oinarria	Partaidetza %	Ekarpenak ondare tresnak		Ordaindutako ekarpenak
							3649	3648			3647	3646	
3640	3641	3642	3643	3650	3651	3644	3649	3645	3646		3647	3646	

6. ORRIALDEA	Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeak)	
200	BALANTZEA: AKTIBOA (I)	
	2025	
IFZ	Izena edo sozietatearen izena	

Aktiboa	Aktiboko kontuen saldoa	Kontu orokorren saldoa kontzeptua
KORRONTEA EZ DEN AKTIBOA (N,L,E)		101
Ibilgetu ukiezina (N,L,E)		102
Garapena (N)	103	
Kontzesioak (N)	104	
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak (N)	105	
Merkataritzako funtsa (N,L,E).....	106	
Aplikazio informatikoak (N).....	107	
Ikerketa (N).....	108	
Jabetza intelektuala (N)	181	
Ibilgetu ukiezina: bestelakoak (N)	109	
Gainerakoak (L,E).....	110	
Ibilgetu materiala (N,L,E)		111
Lurrak eta eraikuntzak (N).....	112	
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala (N)	113	
Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak (N).....	114	
Higiezineta inbertsioak (N,L,E)		115
Lurrak (N)	116	
Eraikuntzak (N).....	117	
Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan epe luzera egindako inbertsioak (N,L,E)		118
Ondare tresnak (N,L,E)	119	
Enpresei emandako kredituak (N).....	120	
Zorren baloreak (N).....	121	
Eratorkinak (N).....	122	
Beste finantza aktibo batzuk (N)	123	
Beste inbertsio batzuk (N)	124	
Gainerakoak (L,E)	125	
Epe luzerako finantza inbertsioak (N,L,E)		126
Ondare tresnak (N,L,E)	127	
Hirugarrenen emandako kredituak (N)	128	
Zorren baloreak (N).....	129	
Eratorkinak (N).....	130	
Beste finantza aktibo batzuk (N)	131	
Beste inbertsio batzuk (N)	132	
Gainerakoak (L,E)	133	
Geroratutako zergen aktiboak (N,L,E)		134
Merkataritzako zordunak, korronteak ez bestelakoak (N,L,E)		135
AKTIBO KORRONTEA (N, L,E).....		136
Korronteak ez diren aktiboak, saltzeko mantendutakoak (N,L)		137
Izakinak (N, L,E)		138
Merkataritzakoak (N).....	139	
Lehengaiak eta beste hornigai batzuk (N)	140	
Aribideko produktuak (N).....	141	
Ekoizpen ziklo luzeak (N)	142	
Ekoizpen ziklo laburrekoak (N).....	143	
Produktu amaituak(N)	144	
Ekoizpen ziklo luzeak (N)	145	
Ekoizpen ziklo laburrekoak (N).....	146	
Azpiekoizkinak, hondakinak eta berreskuratutako materialak (N)	147	
Aurrerakinak hornitzaileei (N)	148	
Berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubideak (N).....	182	

Aurkezpen telematikoa

7. ORRIALDEA	Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egoketaren araubideko erakundeak)	2025
200		BALANTZEA: AKTIBOA (II)
IFZ	Izena edo sozietatearen izena	

Aktiboa	Aktiboko kontuen saldoa	Kontu orokorren saldoa kontzeptuka
Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (N, L,E).....		149
Salmentengatiko eta zerbitzuengatiko bezeroak (N, L,E)	150	
Epe luzerako salmentengatiko eta zerbitzuengatiko bezeroak (N,L,E)	151	
Epe laburrerako salmentengatiko eta zerbitzuengatiko bezeroak (N, L,E)	152	
Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen bezeroak (N).....	153	
Denetarikozko zordunak (N).....	154	
Langileak (N).....	155	
Zerga arrunten aktiboak (N).....	156	
Beste kreditu batzuk administrazio publikoekin (N).....	157	
Akziodunak (bazkideak), eskatutako ordainketengatik (N, L,E)	158	
Beste zordun batzuk (L,E)	159	
Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan epe laburrera egindako inbertsioak (N, L,E)		160
Ondare tresnak (N, L,E)	161	
Enpresei emandako kredituak (N)	162	
Zorraren baloreak (N)	163	
Eratorriak (N).....	164	
Beste finantza aktibo batzuk (N).....	165	
Beste inbertsio batzuk (N)	166	
Gainerakoak (L,E).....	167	
Epe laburrerako finantza inbertsioak (N, L,E).....		168
Ondare tresnak (N, L,E)	169	
Enpresei emandako kredituak (N)	170	
Zorraren baloreak (N)	171	
Eratorriak (N).....	172	
Beste finantza aktibo batzuk (N).....	173	
Beste inbertsio batzuk (N)	174	
Gainerakoak (L,E).....	175	
Epe laburrerako aldizkakotzeak (N, L,E)		176
Eskudirua eta antzeko aktibo likidoak (N,L,E)		177
Diruzaintza (N)	178	
Antzeko beste aktibo likido batzuk (N)	179	
AKTIBOA, GUZTIRA (N,L,E)		180

Aurkezpen telematikoa

8. ORRIALDEA	Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egokzetaren araubideko erakundeak)	
200	BALANTZEA: ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (I)	
	2025	
IFZ	Izena edo sozietatearen izena	

Ondare garbia eta pasiboa	Ondare garbiko edo pasiboko kontuen saldoa	Kontu orokorren saldoa kontzeptua
ONDARE GARBIA (N,L,E)		201
NORBERAREN FUNTSAK (N,L,E)		202
Kapitala (N,L,E)		203
Eskrituratutako kapitala (N, L,E)	204	
(Eskatu gabeko kapitala) (N, L,E)	205	
Jaukipen prima (N,L,E)		206
Erreserbak (N,L,E)		207
Legezkoak eta estatutuetakoak (N)	208	
Beste erreserba batzuk (N)	209	
(Norberaren ondareko akzioak eta partaidetzak) (N,L,E)		210
Aurreko ekitaldietako emaitzak (N,L,E)		211
Gerakina (N)	212	
(Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak) (N)	213	
Bazkideen beste ekarpen batzuk (N,L,E)		214
Ekitaldiko emaitza (N,L,E)		215
(Konturako dibidendua) (N,L,E)		216
Ondare garbiko beste baliabide batzuk (N,L)		217
BALIO ALDAKETEN ONDORIOZKO DOIKUNTZAK (N,L)		218
Arrazoizko balioko finantza aktiboak, ondare garbian aldatetako sortzen dituztenak (N)		219
Estandura eragiketak (N)		220
